

33.AZKOITIAZPEITIA MARATOI ERDIA ARAUDIA

1.-Artikulua- "XEYE"K.E., AZKOITIAZPEITIA arteko **HOGITA HAMAIRUGARREN MARATOI ERDIA** antolatu du EL DIARIO VASCO eta LABORAL KUTXA enpresen laguntzarekin. Proba honetan 16 urtez gorakoek parte har dezakete emakumezkoak nahiz gizonezkoak,bertakoak nahiz kanpokoak, federatuak egon edo ez.

2.- Artikulua - Azkoitiko eta Azpeitiko Udalek; Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak babestutako proba da.

3.- Artikulua - Lasterketa hau 21 kilometro eta 97 metrokoa izango da.Zirkuito hau RFEA homologatu eta neurtu du. 2026eko Martxoaren 21ean egingo da; irteera Azkoitian izango da, eta helmuga Loiolako Ibilbidean (Hotel Loiola).

Parte hartzaileek Azpeitiko Udal Igerilekuko aldagelak eta duxtak erabili ahal izango dituzte (helmugatik 300 metrora dago igerilekua), beti ere osasun neuriek ahalbidetzen badute.

4.- Artikulua - Helmugako kontrola irteera eman eta bi ordu terdira itxiko da.Ibilbidean zehar denborak hartzeko zein edariak banatzeko zenbait postu jarriko dira.

5.- Artikulua - Lasterketa F.A.G.eko epaileek kontrolatuko dute.

6.- Artikulua - Lasterketan parte hartu nahi dutenek antolatzaileek izena emateko prestaturiko orria bete beharko dute. Izena emateko orriak ohiko lekuetan eskuratu ahal izango dira.

Izena ematerakoan 23tik 37ra Euro ordainduko dira partaidetza-kuota moduan. Baldin eta zer datetan ematen duten izena edo antolakuntzak eskaini ditzakeen deskontu desberdinen arabera.

7.- Artikulua - Antolatzaileek adierazitako ibilgailuek bakarrik jarraituko ahal izango dute lasterketa.

8.- Artikulua - Antolatzaileek bere gain hartu dute proba modurik egokienean eta kiroltasun osoz egiteko ardura. Horretarako,aurrez antolatze-lanetan aritu den jendeak kontrolatuko du lasterketa eta GURUTZE GORRIaren laguntza eta asistentzia ere izango dira.

9.- Artikulua - Antolatzaileek lasterketa aurretik azterketa medikoa egitea gomendatzen diete lasterkariei, badaezpada.

10.- Artikulua - Antolakuntzak bere gain dauka "Erantzukizun Zibila"ren poliza eta atletek edukiko dute "Erantzukizun Zibil eta Ezbeharren" aseguru.

11.- Artikulua - Laisterkariak izena ematen duen unetik arauak guztiz ezagutu eta onartzen ditu. Eta adierazten du sasoi onean dagoela eta ez duela bere burua arriskuan jarri edo lasterketan parte hartzea eragozten dion gaixotasunik. Bere gain hartzen ditu, baita ere, proba honetan parte hartzeak sor diezazkiokeen kalteak.

12.- Artikulua - Dorsala ikusgai izan bekarko da probaren ibilbide osoan.

13.- Artikulua - Parte hartu ezin izatekotan, 15 egun lehenago jakinaraziz 3 aukera daude:

- Dorsala gorde datorren urterako
- Titulartasun aldaketa (parte hartzaile berriaren datuak bidaliz)
- Lasterkariaren poltsa etxera bidali

14.- Artikulua - Parte hartzaileak, argazki, bideo eta beste edozein ikus-entzunezko materialean azaltzen denean, publizitate erabilera baimentzen dio antolakuntzari, onartuz bere izena azaltzea probako sailkapenean, komunikabideetan eta/ edo Interneten.

15.- Artikulua - Ezinbestekoa da izen emate orrian eskatzen diren datu guztiak zuzen betetzea, NAN zenbakia, atletismon federatuak direnak bere lizentziaren zenbakia (lizentzia nazionala, Euskal Autonomi Erkidegokoa edo lurraldekoa) eta izanez gero Karnet Korredor Plusaren zenbakia barne.

16.- Artikulua - Abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoan, izaera pertsonaleko datu-babesari buruz ezartzen denarekin ados, parte hartzaileek emandako datu pertsonal guztiak eta lasterketan lortutako irudiak, antolakuntzako fitxategian gordeko dira, lasterketako parte-hartzea kudeatzeko, baita ere beraren sustapena, banaketa eta difusiorako.

17.- Artikulua - Lasterketa ezeztatzen bada antolakuntzaren esku ez dauden arazoengatik, barne eta ez mugatuta, ustekabeko klimatologia, udal, eskualde edo nazioko autoritateen dekretua, leherketa, gerrako ekintzak, matxinada, ekintza terrorista edo ekintza terroristaren mehatxua, sabotaiak, epidemia edo grebak, parte-hartzaileek ez dute eskubiderik izango izen-emate-kuotaren dirua jasotzeko ez eta beste galera batzuen ordainketarako hala bidaia-gastuak edo ostatua.

18.-Artikulua- Korrikalari guztiek, unean dauden osasun neurriak bete beharko dituzte.

"Proba hau RFEA egutegiko proba bat da. Beraz lasterkariak bere izen ematea egiterakoan bere oinarritzko datuak (Izena, Abizenak, NAN/IFZ/ Pasaporteak, Jaiotze data, Sexua eta Posta Kodea) Espainiako Federaziora bidaltzea baimentzen du eguneko aseguruak, emaitzak eta ranking-a kudeatzeko. Eguneko aseguruak egiteak istripu aseguru eta erantzunkizun aseguruak parte hartzea bermatzen du".